

2018KO APIRILAREN 16AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO AZAROAREN 6KO, AZAROAREN 27KO ETA ABENDUAREN 18KO BILKUREN AKTAK).

2.- 2018KO UDAL AURREKONTU EKONOMIKOAREN ONARPENA.

3.- 2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN HASIERA ATZERATZEKO ESKAERA.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izaguirre Arocena Jna. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Maria Pilar Elorza Inchausti And. (Zegama Lantzen).

Izaskun Igoa Arizcorreta And. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu Jna. (Zegama Lantzen).

Urko Gomez Ropón Jna. (EH Bildu).

Imanol Garmendia Iruretagoyena Jna. (EH Bildu).

Olaia Elorza Iñarra And. (EH Bildu).

Maria Luisa Gorrochategui Irastorza And. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Maite Rodrigo Albizuri And. (Zegama Lantzen).

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2017KO AZAROAREN 6KO, AZAROAREN 27KO ETA ABENDUAREN 18KO BILKUREN AKTAK).

Alkateak, 2017ko azaroaren 6ko, azaroaren 27ko eta abenduaren 18ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

2.- 2018KO UDAL AURREKONTU EKONOMIKOAREN ONARPENA.

2018ko aurrekontuaren espedientearen berri ematen da.

Idazkariak, onartzea proposatzen den aurrekontua osatzen duten agirien azalpena egiten du: kapituluko laburpenak, gastu eta sarreren partidakako aurrekontua, zorpetze eranskina, laburpen ekonomiko funtzionala, Alkatearen memoria, inbertsioen eranskina, transferentzien eranskina, dirulaguntzak arautzeko prozedura, aurrekontua gauzatzeko udal araua, ekonomi eta finantza txostena, onarpen prozedura txostena, plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.

Era berean aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzko txostenaren berri ematen da.

Era berean, Idazkari-kontuhartzaileak, udal aurrekontu ekonomikoan eragina duten zenbait lanpostuei buruzko ohartarazpena egin du.

Aurrekontu-espedientearen arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- 2018ko Udaleko Aurrekontu Orokorreko jarraian azaltzen den gastu eta sarreren kapituluko laburpena hasiera batez onartzea:

Gastuak

Kapitulua	Izena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	372.452,10
2	Ondasun arrunten erosketak	1.118.407,04
3	Finantza gastuak	-
4	Transferentzia arruntak	313.369,68
6	Inbertsio errealak	219.500,00
7	Kapital transferentziak	-
8	Aktibo finantzarioak	-
9	Pasibo finantzarioak	-
TOTAL		2.023.728,82

Sarrerak

Kapitulua	Izenak	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	350.651,83
2	Zeharkako Zergak	10.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	298.792,74
4	Transferentzia arruntak	1.306.239,70
5	Ondarezko sarrerak	55.210,00
6	Inbertsio errealak besterenganatzea	-
7	Kapital transferentziak	2.834,55
8	Actibo finantzarioak	-
9	Pasibo finantzarioak	-
TOTAL		2.023.728,82

Bigarrena.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Hirugarrena.- Aurrekontuaren onarpena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-Oholean 15 egunez jendurrean jarri, epe horretan interesatuek aztertu eta ondo deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Jendurrean egoteko epea inolako erreklamazio edo oharpen jasotze gabe iragango balitz, akordio hau behin-betikoa bihurtuko litzateke.

Laugarrena.- Behar den garaian, aurrekontuaren kopia ziurtatua Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara igorri.

2018. URTEKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.

2018. urterako Udal honetako plantila organikoa eta lanpostuen zerrendaren berri ematen da.

Adierazitakoa ikusirik, eta 2018ko Plantila Organikoan eta Lanpostuen Zerrendan jasotakoa aztertu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Udal honetako 2018ko Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda jarraian adierazten den bezala onartzea:

2018.URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	LANPOSTU KOPURUA/ NÚMERO DE PUESTOS	TALDEA/ GRUPO (1)	EGOERA/ SITUACIÓN
IZAERA NAZIONALEKO GAITASUN ESKALA/ FUNCIONARIOS DE HABILITACIÓN NACIONAL Idazkari-Kontuhartzailetzako azpieskala/ Subescala de Secretarios-Interventores			
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA/ SECRETARIO/A-INTERVENTOR/A	1	B	H-V
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA/ ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL Administrarien Azpieskala/ Subescala Administrativa			
BALIABIDE PUBLIKO, PERTSONALA ETA KONTUEN ADMINISTRARIA/ ADMINISTRATIVO/A DE GESTIÓN DE LOS RECURSOS PÚBLICOS, PERSONAL Y CUENTAS	1	C	H-V

B) LAN LEGEPEKO LANGILEEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK/ PUESTOS RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

LANPOSTUAREN IZENA/ DENOMINACIÓN DEL PUESTO	Lanpostu kopurua/ Número de puestos	Lanbide maila/ Categoría profesional	Taldea / Grupo (1)	Egoera/ Situación
Euskara eta Kultura teknikaria / Técnico/a de Euskara y Cultura	1	2	B	F
Zeregin Aniztetako Ofiziala/ Oficial de cometidos múltiples	1	9	D	F
Gizarte Laguntzailea/ Asistente/a Social	1	2	B	H-V
Liburuzaina/ Bibliotecario/a	1	7	C	H-V

(1) 6/89 Legeko 43. Atala/ Art. 43 de la Ley 6/89.

EGOERA-SITUACIÓN
J-P: Jabea-Propiedad

F: Finkoa -Fijo
H-V: Hutsik-Vacante

2018. URTERAKO UDAL HONETAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominac.	Lanpostu kopurua Nº de puestos	Taldea/Grupo	Lanpostu mota Tipo de puesto	Homikuntza era Forma de EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAFF	Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias			Dedikazioa Dedicación	Bulegoa Dependencia	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño						Berariazko mezimendulak
						Dest. Osag. Maila, Dekretu Nivel	Osagari espezifiko Complemento específico	Adskripzioa Adscripción			Hizkuntz eskakiz. Perfil lingüístico		Exijituta ko titulazio a Titulaci ón exigida				
											Koefizientea Coeficiente	Derrigortasun data Fecha de					
KARRERAKO FUNTZIONARIEI ERRESERBATURIKO LANPOSTUAK																	
1	Idazkari-Kontuhartzailea	1	B	S	C	19	24	19.498,52	100	I-K	GN	IK	3	4	96-10-30	Z/PZS/EE. Dp	(1)
2	Baliabide publiko, personala eta kontuen administratzailea	1	C	N	C	13	18	15.970,42	100	I-K	AO	AA	-	3	17-05-09	GB	
PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA																	
1	Secretario-Interventor	1	B	S	C	19	24	19.498,52	100	S-I	HN	SI	3	4	30-10-96	Dp.D/C PS/EE	(2)
2	Administratzailea de gestión de los recursos públicos, personal y cuentas	1	C	N	C	13	18	15.970,42	100	SI	AG	AA	-	3	09-05-17	BS	

Ordena zenbakia Nº de orden	Izena Denominación	Lanpostu kopurua Nº de puestos	Taldea/Grupo	Kategoria profesionala Categoría profesional	EUF/LEBA maila Nivel/ARCEPAF	Ordainketa Osagarriak Retribuciones Complementarias		Dedikazioa Dedicación	D.B.O. C.D.F.	A.B.O.P. C.P.T.	Lanpostu horretarako exijitutako ukanbeharrak Requisitos exigidos para su desempeño				Berariazko mezimendulak
						Osagari maila Compl. destino	Osag. espezifiko Complemento específico.				Hizkuntz eskakizuna Perfil lingüístico	Titulaci ón exigida titulazioa			
												Koefizientea Coeficiente	Derrigortasun data Fecha de preceptividad		

LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

1	Euskara eta Kultura. Tek.	1	B	2	16	21	16.295,06	100	-		4 T.G.	94-12-31	D
2	Zeregin anitzetako ofiziala	1	D	9	10	15	14.627,32	100	%25	%2	2	00-12-31	EG/B1 GB
3	Gizarte laguntzailea	1	B	2	14	19	6.081,66	43,99	-		3	01-01-01	Dp. T.S.
4	Liburuzaina	1	C	7	9	14	3.281,92	27,76			3	02-05-06	GB

PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS A PERSONAL LABORAL

1	Técnico de Euskera y Cultura	1	B	2	16	21	16.295,06	100	-		4.T.P	31-12-94	D
2	Oficial de Cometidos Múltiples	1	D	9	10	15	14.627,32	100	%25	%2	2	31-12-00	GE/CC B1
3	Asistente Social	1	B	2	14	19	6.081,66	43,99	-		3	01-01-01	G.L. Dp.
4	Bibliotecario/a	1	C	7	9	14	3.281,92	27,76			3	02-05-06	BS

(1)
- Berariazko merezimenduak.

1.- Eginiko zerbitzuak:

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkartearen barruan: 0,020 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Azpieskala berean, Euskal Autonomi Elkarteaz kanpo: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,22 puntu gehienez).

* Herri-Administrazioan Administrazio Orokorreko Teknikari gisa edo antzeko lanposturen batean eginiko zerbitzuak: 0,01 puntu urte bakoitzeko (0,06 puntu gehienez).

2.- Prestakuntza-ikastaroak:

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-kontuhartzaitzarekin zerikusia duten gaiet buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,10 puntu (0,30 puntu gehienez).

* HAAE edo Euskal Autonomi Elkarteko beste erakunde ofizial batek udal-administrazioarekin zerikusia duen beste edozein gaiet buruz antolatutako 40 orduko edo iraupen luzeagoko ikastaro bakoitzeko: 0,05 puntu (0,20 puntu gehienez).

3.- Titulazioak:

* Zuzenbideko edo Ekonomi eta Enpresa Zientzietako dokortzea titulua izatea: 0,5 puntu.

- Berariazko merezimenduak egiaztatzeko modua:

* Eginiko zerbitzuak egin direneko udal-korporazioako idazkariak emandako jatorrizko ziurtapen bidez egiaztatuko dira.

* Ikastaroak, kasuak kasu, HAAEko edo eskola ofizialeko funtzionarioak edo agintariak emandako jatorrizko ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko dira.

* Unibertsitate-titulua izatea, behar bezala konpultsatutako jatorrizko agirien bidez.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko, 6/1989 Legean, Euskal Administrazio Publikoko Funtzionarioen Ordainsariei buruzko, uztailaren 30eko 207/1990 Dekretuan, eta 343/1992 aurrekoa aldatzen duen Dekretuan, aurreikusten den egiturara egokitzapena egin ondoren ezarritako ordainsariak:

- Oinarrizko Soldata: Lanpostuari izendatutako legerari legeak ezartzen diona.
- Destinu Osagarria: Lanpostuari izendatutako mailari legeak ezartzen diona.
- Osagarri Espezifikoa: 207/1990 Dekretuan ezarritako egiturara egokitutakoaren arabera.

3.- 2017KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Alkate-Lehendakariak 2018ko martxoaren 24ko 024/0318 Alkatetza Dekretuaren berri eman du, hitzez hitz honako hau delarik:

“ Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau, ebatzi dut:

Lehen. Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		413.583,97
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		375.238,41
Aurrekontuko zordunak :	374.111,06	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.127,35	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		202.487,05
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	156.204,81	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	46.282,24	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		586.335,33
5.- Saldo kobragaitzak:		25.742,56
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		113.476,91

7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):	447.115,86
--	------------

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	78.128,54
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-3.224,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	282.957,64
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-20.070,91
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	337.791,27

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	683.006,90
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	184.594,09
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	867.600,99

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udaltzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.”

Espedientean jasotakoaren arabera, Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2017. urterako ezarritako helburuak

edota gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta dago, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, aurrekontu egonkortasunaren helburua edota gastuaren araua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Beraz1/2013 Foru Arauaren 5.3 artikuluan eta Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu-hartzaileak berariazko txostena egin du, honako honi erantsi zaiona, egintza honekin udalbatzarrari jakinarazten zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkaturako duena.

Udalbatzarrak, erabakiaren berri jasotzen du.

4.- 11. EREMUKO (OLABERRIA) INDUSKETA SELEKTIBOAREN PLANAREN BARNEAN JASOTAKO LANEN HASIERA ATZERATZEKO ESKAERA.

Zegamako Udalbatzarrak, 2017ko azaroaren 27an egindako bilkuran, 11. Eremuko (Olaberria) Indusketa Selektiboaren Planaren barnean jasotako lanak burutzeko lana (indusketaren barnean burutu beharreko indusketaren jarraipenaren eta analitiken laguntza teknikoa barne), Lurkide Hondalanak enpresari esleitzea erabaki zuen, 188.792,90 euro gehi 39.646,51euro (BEZ), guztira 228.439,41 eurotan (BEZ barne) eta 14 asteko egite epearekin.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria 2017ko azaroaren 21ean emandako industeko baimena eman zuen.

Baimen horretan adierazitakoaren arabera, indusketak hasteko epea, esleipen baimena eman eta hiru hilabetetan ezartzen zen.

Jon Mikel Murua Uribe-Etxebarriak, Lurkide Hondalanak S.L. enpresaren ordezkari eta izenean, eta indusketa lanen aholkularitza teknikoak adierazitakoa oinarritzat hartuta, aipaturiko indusketa lanak aurrera eramateko garai egokiena udako hilabeteak direla adierazten du, ekaina-uztaila bitartean, eguraldi ona eta lehorra dagoenean.

Horrenbestez, lan horiek 2018ko ekaina-uztaila bitartera atzeratzeko eskaera egiten da.

Eskaera aztertu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako lau zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau onartzen du:

Lehenena.- Eskaeran adierazitako eguraldi arrazoiak direla medio eta horiek aintzat hartuz, Jon Mikel Murua Uribe-Etxebarriak, Lurkide Hondalanak S.L. enpresaren ordezkari eta izenean, aurkeztutako eskaera onartzea.

Bigarrena.- Dagozkion ondorioetarako, eskaera hau, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara helaraztea.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 012/0318 erabakia, martxoaren 19koa, 6974 fakturen erlazioa onartuz, guztira 30.735,78 eurokoa.
- 013/0318 erabakia, martxoaren 20koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz (Dancover, 130,22 euro).
- 014/0318 erabakia, martxoaren 22koa, zenbait ordainketa onartuz (Gespam S.L,ri 23,56 euro itzultzea).
- 015/0318 erabakia, martxoaren 22koa, zenbait ordainketa onartuz (Pedro Iparragirre S.L,ri, 15,00 euro itzultzea).
-
- 016/0318 erabakia, martxoaren 23koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz (Gipuzkoako Mendizale Fed. 911,86 euro; Geuria Aroztegia, 139,39 euro).
- 017/0318 erabakia, martxoaren 26koa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa onartuz, guztira 5.806,35 eurokoa.
- 018/0318 erabakia, martxoaren 26koa, 7093 fakturen erlazioa onartuz, guztira 3.141,73 eurokoa.
- 019/0318 erabakia, martxoaren 27koa, partaidetza programaren barnean Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako karpa bat jartzeko eskaera onartuz.
- 020/0318 erabakia, martxoaren 28koa, udal langileen nominak ordaintzea onartuz.
- 021/0318 erabakia, martxoaren 28koa, zenbait gizarte laguntza bideratzea onartuz.
- 022/0318 erabakia, martxoaren 28koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz.
- 023/0318 erabakia, martxoaren 28koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz (Goierriko Kirol Elkartea, 3.734,06 euro).
- 024/0318 erabakia, martxoaren 28koa, 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartuz.
- 01/0418 erabakia, apirilaren 11koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz (Top buzonez, eskaera; 1.077,81 euro).
- 02/0418 erabakia, apirilaren 13koa, 7280 fakturen erlazioa onartuz, guztira 27.189,61 eurokoa.
- 03/0418 erabakia, apirilaren 13koa, zenbait fakturen ordainketa onartuz (Gasgarin, 178,50 euro).

6.- GALDE ERANTZUNAK.

Ez dira egiten.

Aztertzeo gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zortziak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2018kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2018.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO